

batean eta eseritzen da zoi gañean, baña Morfeoren egikari biguñari baza emateko bildurrez (bada oiez bezelako gaiztakeriaz pozkidatzen da guri lotargi oso beteak biraltzen esnaa egon bear degunean), alchatzen da, eta pauso chit geldiarekin eta begirunezkoarekin orrons ononz dabill illargiaren argian. Luz-ek jarraitzen dio bere bistarekin denbora piskaren batean, zeren esanezkisunezko atsegintasun bat sentitzen du galaiari begira, zeñaren aurpegiak, begitarte azkarrak eta boz eztsuak irabasi duten, aren gaitzizgabeko biotza; baña, azkenean, garaitzen du nekeak, ichitzen ditu pollikiro bere begi ederrak, eta logalearen jainkoden ongilleak bere egoakin estaltzen du maitatsu.

(Jarraituko da).

CLAUDIO OTAEGI-KOAK
euskaratua.

ERRIKO-SEME DONOSTIARRA.

Soneto premiado en los Juegos florales de esta Ciudad con la TAZA DE PLATA, ofrecida por la Sociedad

LA FRATERNAL.

Begiyetan farrak: aboan, fiña,
Itz erdi egokia edo lorea.
Sudurra zercho bat lotzagabea:
Damakin beldurri, moldatu eziña.
Naiz pobre edo aberatz, beretzat diña;
Piñoyaletatik soñu zalea;
Dantz guzietan zan pare bagea
Ta ez zitzaion irten lenengo agiña.
Chapel altuakin, boina jechirik
Begeraño, edo utzik kalparra,
Ondo beti; nai dan soña jantzirik
Diruri dukea; naiz izan zarra,
Ume beti. Au da bizi bizirik
Erriko semea. DONOSTIARRA.

SERAFIN BAROJA.
